

Lezamako udal liburutetgi digitala interneteko sare sozialetara zabaldu da

LEZAMA. Interneten garaian, Udal liburutegiak ere digitalizatu behar dira, eta ohiko paperezko edizioak eskaintzeaz gain, on line gisako zerbitzua ahalbidetzea ezinbestekoa dela dirudi. Hala uste dute Lezamako udal liburutegiko arduradunek, eta horregatik liburutegiari buruzko blog bat sortzearekin batera, martxan jarri berri dute idazmahai birtuala, Netvibes delako tresna erabiliz, hain zuzen (liburutegiak.blog.euskadi.net/lezama eta www.netvibes.com/lezamakoliburutegia).

Ekimen hauek direla bide, Lezamako liburutegia Plataforma Digital egitasmoaren partaide da. Honen xedea da internet bidezko proiektu instituzionalak sustatzea. Lezama da gisa honetako proiektuak gauzatu dituen Txorierriko lehen udalerria. 'On line erako administraziozko urratsak ematean datza proiektu hauen zioa', argudiatzen dute udal arduradunek.

Blogaren bidez, 'edonork jakin ahal izango du zeintzuk diren unean-unean eskaintzen diren nobedade literario eta ikus-entzunezkoak, eta era berean, herrian burutzen diren beste jarduera ba-tzuei buruzko informazioa ere jasoko dute', diote ekimenaren eragileek. Gauzak horrela, Lezamako Ludoteka, Gaztegunea eta Gaztelekuarekin harremanetan jartzeko aukera ematen du. Bide batez, ikastaroen berri jaso daiteke.

Bestetik, idazmahai birtuala ez da liburutegiko gaietara soilik muga-tzen (liburuen katalogoa eta gomendioak, esaterako). Izan ere, Lezamako albisteen eta jardueren berri ematen du, baita udal ekipamenduei eta kultura edukiei buruzko informazioa ere. Liburutegiaren izaera digitalari jarraiki, webgune honetan kontsultatu daitezke e-book edo liburu elektronikoak nahiz audioliburuak.

Plataforma honetan aurki daitezkeen beste zerbitzuen artean, aipagarriak dira Haur Txokoa, Ludoteka eta gazteei zuzendutako informazioa eta baliabideak. 'Liburutegia erabiltzen dutenek zein Lezamako edozein bizilagunek derrigorrez bisitatu beharreko tresna da hau', baieztatzen dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Halaber, liburutegia sare sozialetan ere bada, Facebook-en profila ireki berri du eta. 'Edozein arrazoiengatik liburutegira joaterik ez duten guztiei heltzea gura dugu. Gainera, on line erako administrazioak erabiltzaileekiko elkarrekintza sustatzeko erreminta oso aproposa da', irizten dute liburutegitik.

Trebakuntza ikastaroak Tresna hauek garatu ahal izateko, liburutegiko langileek zenbait trebakun-tza-ikastaro jaso zituzten joan den urtean zehar, ' udal liburuzain digital ' batek behar dituen eskumenak lortzearen, hain zuzen. Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) arloko trebakuntza plan hau Lezamako Udalaren Kultura Sailak bultzatu du, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.

Ikastaroak Mungiako KZgunean egin ziren. Izan ere, KZguneek proiektu honetan parte hartzen dute, eta Bizkaiko eskualde bakoi-tzak zenbait egoitza ditu. '2004tik, on line erako liburutegi-sarea dago, baina, orain, kontzeptu horretan sakondu dugu. Horretarako, aipatu tresna teknologikoak eta beste zenbait garatzen jarraituko dugu', adierazi dute Lezamako Udaletik.